

## EUSKAL HIZTEGIGINTZAREN ETA TERMINOLOGIAREN INGURUAN

*Ibon SARASOLA*

Euskaltzaindia

### 0. Atarikoak

"Ekintza bolkanikoak ere izan ziren Era Paleozoikoan zehar, hauetariko batzuk orogenia gertatu aurretik eta beste batzuk gertatu ondoren, Periodo Permiarrean hain zuzen. Ondorioz arroka bolkaniko ugari utzi zituzten baina eskala txikiko azaleramenduak besterik ez dituzte osatzen gaur egun. Paleozoikoaren azkenean, gehien batez granodiorita eta biotitz osaturik dagoen Aiako Harriko stock granitikoaren sartzea izan zen gertakizun nagusia. Gertaera honekin batera mineralizazio garrantzitsuak ere bertan gertatu dira. Gero aipatzen dugunez, orogenia honetan izandako gertaerek interes handia izan dute, berauek baitira prozesu metalogenetiko askoren jatorria. Laburbilduz, Paleozoikoan Euskal Herrian sustraiak garatu ziren. Sustrai hauen azaleramenduak gure eskualdeko ekialde menditsuan topa daitezke.

[...] Baina, hasi gaitezke gure ornodun fosil zaharrenetik gora era estratigrafiko batean. Euskal Herriko ornodun fosil zaharrenak konodontok dira eta Nafarroako Karboniferoan topatu dira. Gero, Permiarrean, Triasikoan, eta Jurasikoan gure eskualdean ornogabeak egon ote zirenen aztarna zuzena ia ez daukagu, Jurasikoko arrainen (*Microdon* eta *Lepidotes* generokoak) hortzak eta fosil banaka batzuk salbu. Hala ere, bertan ornodunak bizi zirela suposaketaren kontra ez dago frogarik eta, beraz, bertan bizi zirenen gehienak fosilik utzi gabe desagertu ziren. Kretazeoan aldatzen da egoera. Horrela, Kretazeo Goiztiarreko Bizkaiko Weald fazietaan arrainak, klupeomorfoak hain zuzen, agertzen dira eta Billano itsasmuturrean dinosauruen oinatzak. Azken hauek dira Euskal Herriko dinosauruen aztarna zaharrenak, garai hartan Bizkaiko iparraldeko delta batean dinosauriak bizi zireneko froga alegia.

[...] Beranduxeago, orain dela 80 milioi urteko Aro Campaniarreko itsasoaren hegoaldean, Gasteiz Mendateko arroek adierazi legez, itsas musker erraldoiak, marrazoak eta tramanak ziren nagusi. Bost milioi urte beranduagoko, Aro hau bukatu aurretik, Trebiñoko Konderrian hegoaldetik zetorren ibaiaren delta ederrean era guztietako lehorraldeko narrastiak ditugu. Bertako landaretza tropikalean zein paduretako lokatzetan era eta tamaina desberdinetako dinosauriak, krokodiloak, dortokak, sugeak nahiz lehenengo euskal ugaztunen jarduten ziren, eta zueretan pterosauru narrasti hegalaria jigganteak ziren nagusi. Gainera, animalia hauetako espezie batzuk bertan aurkitu dira lehenengo aldiz, alegia, euskal animaliak antonomasiar. Hala ere, delta honek ez zuen betirako iraun eta itsasoak berriro estali zituen lurralde hauek. Inguruotan lehorraldeko dinosauru eta ugaztunen orde, marrazoak, mosasauru musker beldurgarriak eta Ness lakukoaren antza zuten plesiosauruak zeuden. Dinosauruak eta itsas narrasti gehienak Kretazeoaren bukaeran, duela 65 milioi urte alegia, suntsitu ziren mundu osoan gertatu zen bezala.

Uste dut testu hau euskara tekniko esaten diotenaren erakusgarri tipikoa dela. Ez da beste hainbat baino hobea, ez okerragoa. Eta horregatik hautatu dut, hain zuzen. Arazo bat du, ordea: nahiko *narrasa* da —bidenabar, *narras* da, hiztegiek diotena gorabehera, gaztelaniazko *ramplón*-etik gertuen dagoen euskal hitza—. Eta ez naiz ari *nagusia*, *berau* eta horrelakoez, baizik eta arrazoibidearen garapenez eta logikaz, joskeraren egokitasunaz, komen erabileraz, eta, batez ere, testuaren itxura espainolaz, ia errotikako itxura espainolaz. Beste hizkuntzetan beste horrenbeste gertatzen dela esango didazue, eta hala da. Baina ez da berdin: Espainolez edo ingelesez idazten duenak, besterik ezean,

nolabait esan, idazten du espainolez edo ingelesez. Besterik ezean eta komunikatzeko beharrak hartaturik. Euskaraz ari dena, komunikatze beharraz gainera —eta tamalez, askotan, komunikatze beharren gainetik— "euskara lantzeko", "gure hizkuntzaren egoera normaltzeko", "aberria eraikitzeko" nahiak bultzatzen du. Bestela esan, goiko lerroak ondu dituenak, berdin ondu zitzakeen erdaraz, horiek bezain ongi edo bezain trakeski —hobetoxeago erdaraz gainera, seguru asko—.

Arazo bat dago nire ustez kontu honetan: horrelako testuak laguntzen ari al dira, ala traba ari dira gertatzen "euskara lantzeko, gure hizkuntza egoera normaltzeko" lanean? Nik, egia esan, dudak ditut, eta uste dut egoera larria dela alde honetatik. Beste hitz batzuek esateko, uste dut literatura sortzen eta itzultzen dutenen artean, erdiak gutxienez maila egokia edo ona dutela. Gure testu liburuen moldatzaileen eta unibertsitateko irakasleen artean, aldiz, ez dut uste laudenera heltzen direnik gutxieneko maila batetik gora ari direnak.

Egoera honen errua, partez, euskara batuaren dinamikarena da. Lehentasuna azalari, —Euskaltzaindiko arauetara nolabait esan— eman diogu. Hortaz, euskara batuaren araudia eta euskara ona nahasi ditugu. *Gizonak egin dute* euskara ona da, literatura tradizioko idazle bikain askok —bizkaitar eta gipuzkoar guztiek, gutxieneko kontuan— joskera hori erabiltzen baitute; baina ez da euskara egokia, estandarrak *gizonek egin dute* eskatzen duenez gero. *Bilbon finkatu zen bere familiarekin* esaldiak, aldiz, ez die arauetara kontra egiten, baina euskara gaiztokoa da, hori euskaraz *Bilbon kokatu zen bere familiarekin* esaten delako. Hala ere gure zuzentzaileek lehena zuzentzen dute eta ez bigarrena.

Ildo beretik edo, uste dugu aski dela perpaus bat gramatikala izatea aitzakiarik gabe erabili ahal izateko. Honetan ere lehentasunak aldatu behar genituzke, eta lege nagusi gisa hau ezarri: euskaldun ikasi batek lehen irakurraldian ulertzen ez duen perpaus bat ezin daiteke onargarria izan, euskara gaiztokoa da, eta hortaz arbuigarria. Adibidez, euskal hiztegi batean irakur daitekeen definizio au: "lursaila itxi, gela, etxe eta abarren murrak eratu nahiz edifizio baten teilatuari eusteko eraikuntza bertilaka", euskara gaiztoa da hizkuntzaren alderdi nagusitik, hots, komunikazioaren alderditik, *eusteko*-ra heldu arte bide okerretik eramaten baitzaitu joskerak. Nahiz gramatikak ez, komunikazio beharrak "lursaila ixteko, ... murrak eratzeko ..." eskatzen du hor. Orobat, hiztegi bereko beste definizio hau: "barruko arrenkura, kezka edo amorrua, negarrez zein sentitu eta pentsatzen dena beste pertsona bati kontatuz nerbioak baretu" definizioa, non *negarrez... kontatuz* dela maila nagusia konturatzeko bizpahiru irakurraldi behar baitituzu.

Arazoa latzagoa da, gainera, literatura idazle eta itzultzaile onen produzioa —disziplinagabeak omen direla eta— diskriminatua dagoelako gure terminogintzan, eta are Euskaltzaindiaren hiztegi gintzan, funtzionario eta irakasle "diziplinatuen" euskara narrasaren mesedetan. Hau larria iruditzen zait, gauza jakina baita belaunaldi bakoitzetik, lehen mailako idazleen, hizkuntzaren maisuen testuak soilik igarotzen direla hurrengo belaunaldien oroitzapenera, eta gainerako liburu eta aldizkari ilunetako *paperkada*, aldiz, denboraren iragaitzak suntsitzen duela aztarnarik utzi gabe. Gure jokabidearekin, egungo belaunaldien produziotik gerora geldituko dena baztertzen ari gara, eta denboraren iragaitzak suntsituko duenean oinarritzen.

## 1. Euskal hiztegi gintzaren inguruan

Uste dut inor gutxik ukatuko duela K. Mitxelenaen *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren oinarrian dagoen datu biltze lana erabakigarria gertatu dela egungo euskal hiztegi gintzak iritxi duen maila goran. Esango nuke, Th. Kuhn-en kontzeptua halako askatasun batez erabiliaz, Azkueren paradigmatik Mitxelenaen paradigmara igaro garela azken urteotan. Paradigma hori *Lur* eta *Elhuyar* hiztegiak eta entziklopedien hiztegi alderdiek, eta *Vox Euskara-Gaztelania Castellano-Euskara*-k osatzen dute.

Ezer baino lehen, hiztegi hauen erakusgarri bat, lehen hitzek osatua, aurkeztu nahi nuke, beren ezaugarrien, alde komunen eta desberdintasunen berri gaingiroki bederen emateko. Hauek dira *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*-ren hiztegi alderdiaren lehen hitzak (1991):

- aba 1.** *iz.* Elizgizonekiko trataera, izen-deituren ondoan ezartzen dena. *Ik. aita.*
- ababor.** *iz.* Ontziaren ezkeraldea, brankara begiratuz.
- abade (abat-).** *iz.* Apaiza. II Gizonezkoentzako monastegi bateko burua, apaizteko esku duena.
- abadegai.** *iz.* Apaizgaia.
- abadesa.** *iz.* Emakumezkoentzako monastegi bateko burua.
- abadetar.** *adj.* Apaiztarra. II Bizkaierazko zenbait tokitan, apaizen iritzi eta jokabideen (bereziki politikari buruzkoen) aldeko porrokatua.

Ondokoak *Eskolarako Lur Hiztegi Entziklopedikoa*-renak dira (1996):

- ababor.** *iz.* Ontziaren ezkeraldea, popatik brankara begiratuz.
- abade (abat-).** *iz.* Apaiza. II Gizonezkoentzako monasterio bateko burua, kristauak apaizteko esku duena.
- abadegai.** *iz.* Apaizgaia.
- abadetar.** *izlag eta iz.* Apaiztarra. II Apaizen iritzi eta jokabideen (bereziki politikari buruzkoen) aldeko sutsua.

Horrela hasten dira, hiztegi hitzei dagokionez, *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa* (1993), eta Harluxet Fundazioaren *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa* (1995):

- aba.** *iz.* (neol.) Hainbat apaiz eta erlijiosori ematen zaion trataera, izen-deituren ondoan ezartzen dena. *Arriandiaga-tar Imanol Aba.*
- ababor.** *iz.* ITSAS. Untziaren ezkeraldea, txopatik brankara begiratuz.
- abade.** *iz.* 1. (B) Apaiza. 2. Gizonezkoentzako monastegi bateko burua, apaizteko esku duena.
- abadegai.** *iz.* (B). Apaizgaia.
- abadesa.** *iz.* Emakumezkoentzako monastegi bateko burua.
- abadetar.** *adj.* 1. Apaiztarra. 2. (B) Apaizen iritzi eta jokabideen (bereziki politikari buruzkoen) aldeko porrokatua.

Eta horrela Elhuyar-Harluxet-en *Ikaslearen hiztegia* (1997):

- ababor.** *iz.* (Itsas.) Untziaren ezkeraldea, txopatik brankara begiratuz.
- abade.** *iz.* (B) Apaiza. Gizonezkoentzako monasterio bateko burua, apaizteko esku duena.
- abadesa.** *iz.* Emakumezkoentzako monasterio bateko burua.
- abadetar.** *adj.* (B) Apaiztarra. Apaizen iritzi eta jokabideen (bereziki politikari buruzkoen) aldeko porrokatua.

Ikusten denez, antz handia dute hiztegiok, erabat harturik, elkarren artean. Eta orobat esan daiteke paradigmako hiztegi elebidunez. Esaterako, *Elhuyar euskara-gaztelania castellano-vasco hiztegia* delakoaz (1996):

- aba** *iz.* (Neol.) Padre (tratamiento para religiosos y sacerdotes, introducido por Sabino Arana, y adyacente al nombre propio) *Arriandiaga-tar Imanol Aba:* el padre Imanol Arriandiaga.
- ababor** *iz.* (Itsas.). Babor.
- abade** *iz.* 1. Abad. 2 (B) Eclesiástico, clérigo; sacerdote. **abade egin.** Ordenarse sacerdote.
- abadegai** *iz.* (B) Seminarista, futuro sacerdote, ordenando.
- abadesa** *iz.* Abadesa.
- abadetar.** *adj.* (B) 1. Clerical (perteneciente o relativo al clero). 2. Clerical (partidario del clero).

Eta orobat *Vox Oinarrizko Hiztegia*-z (1997):

**aba** i ERL padre.  
**ababor** i babor.  
**abade** i abad. 2 sacerdote.  
**abadegai** i seminarista.  
**abadesa** i abadesa.

Hauen guztien oinarrian dagoen hiztegia *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* da, hurrengo lerroetan ikus daitekeenez:

**aba.** iz. (1891). *H. b.* (G. g. er.). Elizgizonekiko trataera, izen-deituren ondoan ezartzen dena. Ik. **aita**; **anaia**. *Arriandiaga-tar Imanol Aba*.  
**ababor.** iz. (1677). Ontziaren ezkeraldea, brankara begiratuz. Ant. **istribor**. *Irla ababorreko aldetik utzirik. Ontzia ababorrera makurtzen da. Ababorrean ur-zulo bat dago*.  
**abade, abat-** iz. (\*1562, ~1620). 1. Bizk. Apaiza. *Abade jauna. Nolako elizalde, halako abade* (esr. zah.). *Abadearen lapikoa, txikia baina gozoa* (esr. zah.). *Abade egin*. Ik. **abadetu**. 2. (1643). Gizonezkoentzako monastegi bateko burua, apaizteko esku duena. Ik. **abate**; **abadesa**. *Paulo abade zahar hura. Leireko abadea*.  
**abadegai.** iz. (1885). Bizk. Apaizgaia.  
**abadesa.** iz. (1619). Emakumezkoentzako monastegi bateko burua.  
**abadetar.** *izond.* (\*1745). *G. er.* Apaiztarra. (1966). Bizkaierazko zenbait tokitan, apaizen iritzi eta jokabideen (berezk. politikari buruzkoen) aldeko porrokatua.

Berez, *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* ez da Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren irakurketa arauemaile bat besterik, Errenteriako maisuaren gidaritzapean hasi nuena, gainera. Zer esanik ez beste hiztegi hauen egileek nirekin hitz egin ondoren oinarritu zirela *Hauta-lanerako-an*.

Paradigma honetatik kanpo gelditzen direnak aztertzeak argiago ikusaraz dezake goikoen arteko batasuna. Horrela hasten da, esaterako *Adorez* taldearen azken emaitza, *Europa Hiztegia* (1993):

**ababor:** iz. popatik brankara begiratuz untzia ezkeraldean dagoen hegala  
**abade:** iz. (lat *abbatem*, gr. *abbas*, aram. *abba*, *aita*). kristau-erlijio katolikoan Jainkoaren hitza aldarrikatzen duen eta sakramentuen ospakizunetan gidari den pertsona sakratua: *nolako elizalde, halako abade*. Apaiza.  
**abadene:** ikus. **abatetxe 1**  
**abadesa.** iz. (lat. *abbatissam*) lekaimeen edo mojen monastegiko nagusia; etxeko lekiameek hautatzen dute hainbat urtetarako, euren arauen arabera: *garai batean, monastegiak, abadesa izan ahal izateko, gutxienez hamabi lekaiemek osatua izan behar zuen*.  
**abadetxe:** ikus. **abatetxe 1**  
**abadetza:** abadeei dagokien erakunde nahiz ministraritza

Eta horrela talde beraren *Oinarrizkoa* (1990):

**Ababor:** popatik brankara begiratuz untzia ezkeraldean dagoen hegala  
**Abade:** kristau erlijioan Jainkoaren hitza aldarrikatzen duen eta sakramentuen ospakizunetan gidari den pertsona sakratua. Apaiza.  
**Abadetza:** abadeei dagokien erakunde nahiz ministraritza

Beste alde batetik, J. Marin eta X. Mendigurenen *Lehen Hiztegia* (1991) horrela hasten da, aurrekoetan bezala gramatika hitzak alde batera utzirik:

**ababor** Untziaren atzekaldean, brankari begira jarriz gero, ezkerretan geratzen den alde  
**abade-abadesa 1.** Monastegi bateko burua: *leireko abadea* Aita Santua bisitatzera joan zen.  
 2. Ikus **apaiz**.  
**abagadune** Ikus **aukera**.

Ez ditut, noski, horrela aurkeztu ditudan hiztegiak deskribatuko. Dena dela esango nuke, erakusgarri hauetan asko narbarmentzen ez den arren, Mitxelena paradigmako hiztegiak askozaz ere homologagarriak direla besteak baino, batez ere mikroegituraren,

hots, sarreren barne egitura eta informazio edukiaren aldetik. Dena dela hau esatean ezin ditut ahaztu Manuel Seco lexikografo handiaren hitz hauek<sup>1</sup>:

El simple hecho de asignar a un verbo la etiqueta "transitivo" o "intransitivo" implica la suposición de que el lector tiene unas nociones de sintaxis que, según mi experiencia, no suelen ocupar un lugar en la cabeza del ciudadano medio. Lo que ocurre es que el lector va derecho a las definiciones y se contenta con que estas le ayuden a interpretar la palabra que no entendía. La distancia entre el metalenguaje del lexicógrafo y la comprensión del lector se salva con frecuencia gracias a la imaginación o a la intuición que este aporta. Y gracias a esto, el diccionario *funciona* para muchos *a pesar* de los escollos que interponemos los diccionaristas.

Hots, mikroegituraren aldetik akats nabarmenak dituzten hiztegiak —eta ez da iritzi kontua Mitxelena paradigmatic kanpoko hiztegiak akats larriak dituztela alde horretatik— oso baliagarriak gerta daitezke irakurlearentzat, batez ere honek hiztegiaren legeen berri ez badu. Dena dela, ez dut honekin esan nahi, inondik ere, berdin dela egungo lexikografiaren moldeak betetzea edo ez betetzea. Eta ez da berdin, ez alde praktikotik soilik —ongi moldaturiko hiztegi bat askoz onuragarriagoa izango da beti, batez ere erabiltzaile ikasiarentzat—, baizik eta, orobat, hiztegiaren ere euskal kultura produktioaren zati delako, eta gauzak txukun egiteak etekinak ematen dituelako beti, alde guztietatik.

Agindu dudana bezala ez dut egungo hiztegi kontretuen kritikarik egingo. Dena dela ezin nagoke bizpahiru gauzari buruz iruzkinen bat egin gabe. Batzuk hiztegi elebarkarrei dagokie, besteak elebidunei. Elebarkarrei dagokionez, ez dut uste batere egokia denik gure artean hainbeste erabiltzen den "esaten da" esapidea, gaztelaniazko hiztegiaren ezaugarri bat besterik ez dena. Frantsesez *Le petit Robert*-ek, esaterako, testuinguru markaz egiten du, adibidez **communicatif, ive** sarreran: "2° (*Personnes*). Qui aime à communiquer ses idées, ses sentiments". Gaztelaniazkoetan ere, M. Secoren *Diccionario del español actual*-ek testuinguruaren baliabidea erabiltzen du, *tordo* sarreran, esaterako, ohiko "dícese del caballo o yegua, o del mulo o mula, que tiene el pelo mezclado de negro y blanco"-ren orde "Caballería que tiene el pelo mezclado de negro y blanco"<sup>2</sup> idatziz. Ez legoke gaizki espainol hiztegiaren txarrean imitatu dutenek, orain onean imitatuko balute.

Bide beretik, are hedatuagoa dagoen "acción y efecto de" delakoa, gure hiztegiak unibertsala eta berezkoa dela pentsatzen badute ere espainolezko tradiziokoa besterik ez da. Esaterako, *Le petit Robert* hartzen duenak, edo *Larousse* hiztegi bat, ikusiko du ez dagoela horrelakorik hiztegi osoan. Gehienera jota ere "action de" dago. Eta orobatsu ingelesez, "act de". Horrela, zenbait definizio konparatzen baditugu, hau dugu: **absorción** M. Moliner-ek eta *Vox*-eko *Diccionario Actual de la Lengua Española*-k "Acción de absorber", **absorption** *Le petit Robert*-ek eta *Larousse* hiztegiak "Action d'absorber", *Collins English Dictionary*-k "the process of absorbing or the state of being absorbed"; **pacificación** M. Moliner-ek "Acción de pacificar", eta *Vox*-eko *Diccionario Actual de la Lengua Española*-k "Acción de pacificar. 2 Efecto de pacificar", **pacification** *Le petit Robert*-ek "Action de pacifier", *Collins English Dictionary*-k "the act, process, or policy of pacifying". Definizio guztiok, jakina, erabat baliokideak dira, hots, baten bat besteren bat baino osatuago edo beteagoa iruditzen zaio norbaiti, irudipen hutsa dela pentsa dezake. Esaterako, ikusi dugun bezala, espainolezko hiztegiak ez datoz bat inondik ere noiz den "acción" soilik eta noiz "acción y efecto" erabakitzean; eta ezin dira bat etorri, bereizketa, tradizio lexikografikoa alde batera utzirik, metafisika hutsa delako. Bestalde, gogoratzen naiz aspaldi esan zidala Patxi Goenagak "egintza (edo ekintza) eta ondorioa" horiek euskara gaiztoa iruditzen zitzaizkiola. Niri ere, "Absorbatzearen ekintza eta ondorioa" eta kidekoak, *-aren* horrekin, erabat euskara gaiztoa iruditu zaizkit beti: "Mikelen ekintza", tira, baina "absorbatzearen ekintza" erabat gogorra gertatzen zait. Eta orobatsu iruditzen zait gogorra horren bertsio hobetua, "Absorbatzeko ekintza eta horren ondorioa".

<sup>1</sup> M. Seco. "La microestructura del diccionario del español actual". *Actas do Simposio de lexicografía actual: elaboración de diccionarios. Cadernos de lingua, anexo 3*. A Coruña 1996.

<sup>2</sup> Gure arteko zenbait hiztegiak jabetu ez badira ere, horrelako definizioetan *Caballería* kako zuzenik gabe agertuko balitz, izen baten definizioa izango litzateke, ez izenondo batena.

Goenagak zioen bezala, aski da hor euskararentzat "absorbatzea", eta bide hori da, hain zuzen, *Oxford Advanced Learner's Dictionary* bikainak markatzen digun bidea: "absorbing or being absorbed", hots, "absorbatzea edo absorbatua izatea". Hirugarren zatian, kanpoko *praktika* terminologkoaren berri jakitea ezinbestekoa zaigula frogatzen saiatuko naiz. Baina aurreko lerroetatik garbi ateratzen da, nire ustez, hiztegi gintzaren alorrean ere, espainoletik kanpoko praktika ezagutzea mesedegarria gerta dakigukela.

Hiztegi elebidunei dagokionez, beste gauza bat. Euskal hiztegi gintzak azken hogeitun urteetan egin duen aurrerabideaz jabetzeko aski da ikustea 1976ko *Euskal Hiztegi Modernoa*-ren eta 1996ko *Elhuyar* hiztegi elebidunaren artean alderdi guztietatik dagoen aldea. Ia izendegi itxurako hiztegietatik, egiazko hiztegien mikroegitura agertzen duten hiztegietara igaro gara. Bestalde, adibideen indar argigarriaz jabetu gara, hots, konturatu bide gara hizkuntza bat, azken buruan, esapide eta esaldi bilduma bat dela, eta, hortaz, hizkuntza baten hiztegiaren betekizuna, hizkuntza horretako esaldien berri ematea dela batez ere. Honetan ere alde handia dago Mitxelena paradigmako hiztegien eta besteen artean: haiek gehien bat literatura tradizioko aipuak erabiltzen dituzte; Mitxelenaren paradigmatik kanpokoak, aldiz, hiztegi gileak asmatuiko adibideak baliatzen dituzte, nahiz eta haiek aipu gisa ematen diren<sup>3</sup>.

Dena dela, hiztegi elebidunetan, erdal esapideen kontuan, esapide horien kideak gure tradizioan bilatzen baino areago, euskal ordainak asmatzen ari garela susmoa dut. Adibidez, *matar dos pájaros de un tiro* esapidearen ordain *bide batez bi mandatu egin* ematen du *Elhuyar* elebidunak. Beharbada oso jatorra eta erabilia da, baina nik asmatu itxura hartzen diot; bestalde, tradizioan ez dago, antza, esapide horren arrastorik. Tartasek erabiltzen duen *harri batez bi kolpe egin*, aldiz, gure tradiziokoa da eta niri bederen jatorragoa, hots, euskararen izaerarekin eta tradizioarekin adosago datorrena, iruditzen zait. Orobat, *ver las estrellas*-en ordain, *gorriak ikusi*, glosa itxura duena eta besterik esan nahi duena, eta *txoriak esnatu*, bitxia edo jatorregia, ematen ditu *Elhuyarrek*; tradizioan aurkitu dudana Etxeitaren *txinpartak ikusi* da.

Mikroegiturari dagokionez, akats bat ikusten diot *Elhuyar* elebidunari: aipatu berri ditudan testuinguru-markatzaileak falta zaizkiola. *Vox* elebidunaren gaztelania-euskara idazten ari nintzelarik beti begiratzen nien *Elhuyar*-en proposamenei eta gogoratzen naiz denbora asko-edo galtzen nuela, batez ere adiera askotako hitzetan, adieren arteko aldeez jabetzen. Uste dut puntu hori hobeki soluzionatu dela *Vox*-ean. Harrokeriarik gabe esan dezaket, meritua ez baita nirea, egokitu nuen *VOX Esencial español-inglés* ereduarena baizik. Adibide bakun bat jartzeko —hitz luzeago eta korapilotsuagoetan areago nabaritzen da arazoa— har dezagun *azote* sarrera bi hiztegietan. Horrela dio *Elhuyar* elebidunak:

**azote.** s.m. 1. Zigor, zarta, zartailu, azorria, azote. *Golpeaba a sus esclavos con el azote:* zigorrak jotzen zituen esklaboak. 2. Zigorrada, zartada. *Le dieron cien azotes:* ehun zigorrada eman zizkieten. 3. Ipurdiko [...]

Ni bederen, lehenengoa "kolpea" dela eta ez "tresna", ez nintzen adibidea irakurri arte jabetu, *zartailu* gorabehera, lehen begiratu lasterrean. Sistema hobea iruditzen zait *Vox*-ekoa:

**azote** m (instrumento) zigor, azote. 2 (golpe) zigorkada, zartada. 3 [...]

Zati hau bukatzeko, txosten honetako ideia nagusietako bati heldu nahi nioke. Testuak hizkuntzan —eta, hortaz, hiztegi gintzan eta terminologian—, izan behar duen garrantziari dagokio. Horregatik hasi dut txosten hau testu batekin. Ildo beretik, ez dut uste lekuz kanpo dagoenik aipatzea hemen, datu base terminologikoak, hitz bildumez baino areago testu bildumez eratzea dela, terminologiaren azken joera. Arrazoia begien bistakoa da eta eskuragarritasunaren printzipioan oinarritzen da: datu baseetako hitzak testuetatik

<sup>3</sup> Ikus honetaz JOSETTE REY-DEBOVE "Les domaines respectifs de l'exemple et de la citation dans les dictionnaires de langue actuels" *Actas do Simposio de lexicografía actual: elaboración de diccionarios. Cadernos de lingua, anexo 3.* A Coruña 1996

ateratzen dira, baina basera sartzean testuingurua kentzen badiegu, galtze horrek ez du itzulbiderik; hitz testuingurudunek, aldiz, beren ahalmen osoa atxikitzen dute. Orobat, Elhuyar elebidunaren alde interesgarri eta goragarriena, niretzat, hitz jakin bat ahalik eta testuinguru kopuru handiengan kokatzea izan da. Horrela jokatzuz, ikusarazten zaio irakurleari noraino dagoen testuinguruaren mende hitz baten ordaina beste hizkuntza batean, eta erakusten zaio hitzen arteko bana-banako egokitasunak gutxitan gertatzen direla, eta bana-banakotasuna balego bezala jokatzeko dela, hain zuzen, testu itzuli askoren arrotz itxuraren eragile nagusia.

## 2. Euskal terminologiaren inguruan

Duela urte batzuk artikulu bat irakurri nuen aldizkari batean, halako zirrara eragin zidana. Alabamako estatuan, haur beltzak ordu arte zurientzakoak soilik ziren eskoletara joen ziren lehen egunaz ziharduen artikuluak. Haur beltzak beren arropa onenez jantzita joan omen ziren, ahal bezain dotore, beren jantzi nabarmen merke eta boladaz paseekin. Haur zuriak, jakina, beti bezala joan ziren, beren arropa on-garesti baina zaindu gabe eta trakeski jantziekin.

Euskal terminologiaren egungo egoerak Alabamako eskola egun hura gogoratzen dit. Beste hitz batzuetan esateko, kontua zertan datzan jabetu ez den heldu berriaren tankera hartzen diot gure terminologiari. Irakurri dugu zerbait, ez gara ongi jabetu irakurriaz, eta terminologia delakoa ez dakit zer zela pentsatu dugu; eta Alabamako haur beltzak lehen eskola egunean bezala irrigarri gelditu gara, gure bitxi ustez aberatsekin.

Hasteko, ez gara konturatu terminologia delakoa ez dela zientzia edo diziplina bat, teknika soil bat baizik —terminologiaren teoriaren kontura curriculumaz puzten dutenak eta hartatik bizi direnak, jakina, kontrakoa esango dizute—. Badakit gaur egun edozer gauzari esaten zaiola zientzia, eta, egia esan, zain nago noiz agertuko den sukaldaritzaren zientzia. Baina hemen ere euskal esaera errepikatuegiak dioenez izena aldatzeak ez du izana aldatzen.

Nik neuk, egia esan, ez dut ezer ikasi terminologiaz terminologiari buruzko literatura horretan guztian. Terminologoekin hitz egiteko eta, bileretan, *à la page* nagoela ikusarazteko bestetarako ez didate balio izan irakurketa horiek. Etsita nago terminologiari buruzko "teoria" guztia — termino hiztegi edo zerrendak ontzeko behar denaz ari naiz— asteburu batean ikas ditekela. Nik, ikasi, gainerako hizkuntzen praktika terminologikoa —hots, gainerako hizkuntzetan erabiltzen diren terminoak— aztertuz ikasi dut dakidan guztia. Inongo zalantzarik gabe uste dut terminologia buruzko bibliografia eraginkor bakarra hiztegi elebidunak direla. Hortaz, terminologiari buruzko esku liburu eta artikulu teorikoak baztertzera eta horien ordez Europako hizkuntzetako hiztegi elebidun onak eskuratzera gonbidatzen zaituztet, hots, L<sub>1</sub> gisa ongi-edo ezagutzen duzuen hizkuntza bat eta L<sub>2</sub> gisa Europako hizkuntza gehienak dituzten hiztegi elebidunak lortzera.

Horrela jokatzuz berehala ikusiko duzue, adibidez, terminoen zehaztasunaren printzipioa oso badaezpadako kontua dela. Esaterako, terminologo batzuek *vena* sartu nahi badute euskara teknikoan *zain*-en ordez, azken hau arrunta eta polisemikoa delako da. Ikus dezagun, bada, zer gertatzen den beste hizkuntzetan: latin hizkuntzek eta ingelesak, bihotzera bueltan datorren odolaren daramaten hodiak izendatzeko, are anatomia terminologian, *vena/veine/vein* etab. erabiltzen dituzte, hots, W. Harvey-k odolaren zirkulazioaren berri eman aurretik odol hodiak izendatzeko erabiltzen zuten hitz arrunt polisemikoa. Orobat alemanak *Ader*, nederlandera *ader*, daniera *(blod)are*, polonierak *zyla*, txekierak *zila*, etab. etab. Hitz arrunt hauek, noski, adiera asko dituzte: *Ader* alemanak hamarretik gora ditu hiztegi handietan, horietako asko espainolezko *vena*-ren berberak. Hortaz, gainerako hizkuntzek bezala jokatzekotan, odol hodiak oro har izendatzeko betidanik erabili dugun *zain* polisemikoa —gehienera jota (*odol*) *zain*— erabili behar genuke, bueltan datorren odolaren daramaten hodiak izendatzeko. Ez, bada. Alabamako

haur beltz eskolara etorri berriek bezala, gure arropa ustez dotoreenez, lapurtutakoak badira ere, plazaratu nahi izan dugu. Entzun dugu zerbait, terminologia arazoetan kontua ahalik eta zehatzena izatea omen zela edo, eta munduko zehatzenak, irrigarriki zehatzak izatea erabaki dugu.

*Bena*-ren kasua, noski ez da bakarra. Argitara berri dudana *Euskara batuaren ajeak* liburuan dozenaka ikus daitezke horrelakoak. Bada beste bat, marka guztiak hausten dituen, eta hiztegiei begiratzeko agertzen dugun uzkurtasun patologikoa erakusten duena. *Oleo* da. Aski da hiztegiak miratzen hastea ikusteko inongo hizkuntzak, espainola izan ezik, ez dituela bereizten frijitzeko gaia eta margolaritza teknika: frantsesez frijitzekoa *huile* da, eta *huile* orobat margolariena; ingelesez bata *oil* eta *oil* bestea; alemanez *Öl* eta *Öl*; *olie* eta *olie* danieraz, eta *olja* eta *olja* suedieraz, errusieraz *máslo* eta *máslo*, *olej* eta *olej* polonieraz eta txekieraz... Espainolak bakarrik bereizten ditu *aceite* eta *óleo*. Espainolak eta gure terminologo zehatzen —edo ezjakinen— euskarak. Ildo beretik, ezin onartuzkoa irudituko zaie horrelakoei "refugiado" eta "fugitivo" ez bereiztea; nolanhai ere, hiztegiek erakutsiko digutenez alemanez *Flüchtling*, nederlandez *vluchteling*, danieraz *flygtende*, suedieraz *flykting*... "refugiado", "fugitivo" eta are "prófugo"-ren kide dira, eta gauza bera gertatzen da txekierazko *uprchlík*-ekin eta serbo-kroazierazko *izbjeglica*-rekin, eta errusieraz "errefuxiatu politiko" *emigrante politiko* esaten da...

Hiztegiak irekitzea aski genuke ikusteko, orobat, espainolezko *bodegón* eta frantsesezko *nature morte*, gauza bera direla, eta germaniar hizkuntzek azken honen antzeko zerbait, *bizi geldia* gutxi gorabehera (alemanez *Stilleben*, ingelesez *still-life*, nederlandez *stillevan* etab.) erabiltzen dutenez gero, badirudiela *bodegoi* horren ordez *izadi* (edo *natura*) *hila* erabiltzea aski genukeela guk. Halaber konturatuko ginatke espainolak eta ingelesak izan ezik, gainerako hizkuntza guztiek hitz bera erabiltzen dutela espainolezko *lenteja* eta *lente*-rentzat. Eta, hitz bera orobat, frantsesezko *crystallin* salbuespenarekin, espainolezko *crystalino* begikoarentzat. Hortaz, gure terminologoei ezin pairatuzkoa iruditzen bide bazaie ere, alemanezko *Linse* edo txekierazko *šoška*, esaterako, orobat dira landarea, lupakoa edo begiko zatia; ingelesak bi bereizten ditu, *lentil*, landarea, eta *lens*, lupakoa eta begikoa, eta bi frantsesak, *lentille*, landarea eta lupakoa, eta *crystallin*, begikoa. Perfektutasunaren gailurrean espainola dago hitz banarekin, *lenteja* landarearentzat, *lente* lupakoarentzat eta *crystalino* begikoarentzat. Espainola eta gure terminologoen euskara.

Ildo beretik, hiztegiek erakusten digutenez *luzera* / *longitude* bereizketa ez da nazioartekoa. Frantsesak *longueur* / *longitude* bereizten ditu, eta orobat ingelesak *length* / *longitude*. Baina germaniar eta eslabiar hizkuntzek hitz "arrunta" erabiltzen dute geografian nahiz astronomian: alemanez *Länge*, *luzera*-ren kidea, orobat nederlandez *lengte*, danieraz *længde*, suedieraz *längd*, txekieraz *délka*, polonieraz *długosc* eta abar. Errusieraz "espazio luzera" eta "denbora luzera" bereizten dituzte hizkera arruntean, eta horietatik denbora luzera, *dolgótá*, erabiltzen dute geografia eta astronomia luzerako. Hiztegiek erakusten digutenez, ez dago arrazoi handirik geografian *longitude* erabili "behar" izateko. Aski dugu, agian, *luzera* Europako hizkuntza gehienen ildotik.

Ireki ditzagun gure hiztegi elebidunak *sierra* sarreran. Geografian, espainolezkoa — eta katalanezkoa— soilik da *sierra*. Frantsesez *chaîne de montagnes* itzultzen dute, italiano *catena di montagna* eta ingelesez *mountain range*. "Itzuli" erabili dut, zeren jakina denez, Frantzia, Ingalaterran eta abarretan ez dago "sierra"-rik. Hots, adigaia —edo irudia— bera da hemen espainola, gure zenbait terminologok geografia termino ezin baztertuzkoa dela uste badute ere. Askotan gertatzen da hori geografia terminologian: *macizo*, esaterako, frantseseko *massif*-etik espainolera pasatua da, eta ingelesez, frantsesezkoa bere hartan eta, *mountain mass*, erabiltzen dituzte, eta orobatsu alemanez (*Gebirgs*)*massiv* eta *Gebirgsstock*. Hots, *mendigune* —edo *mendi masa*— aski genuke euskaraz. Eta *meseta*, frantsesez, eta maileguz ingelesez, *plateau* dena, *hochebene* da alemanez, hau da, *goi ordokia*, danierazko *højslette* edo suedierazko *högslätt* bezalaxe, eta, eslabiar hizkuntzetan, txekierazko *náhorní rovina* bezalaxe.



Aski dugu hiztegiak gaingiroki miratzea, ikusteko germaniar hizkuntzetan ez direla *vertical* eta *perpendicular* bereizten: alemanez *senkrecht*, nederlandera *loodrecht*, danieraz *lodret*, suedieraz *lodrät* dira biak. Eta gauza bera gertatzen da polonieraz eta txekieraz. Badute hor ere zer pentsatua gure artean terminologiaren "zehaztasunaz" mintzatzeko direnek. Are gehiago, suedieraz, *vertikal*-ek, "perpendikular" ere esan nahi du. Bakterio baten "ileei" *betile* deitzea irigarria irudiko zaigu agian, baina gure hiztegiek esaten digutenez, hori gertatzen da alemanez (*Wimper*), errusieraz, eta polonieraz gutxienez, eta ingelesez ere, nahiz begietako betilearen izen arrunta *eyelash* den, izen teknikoa *cilium* da, eta *cilium* hori bera da protozooena izendatzeko erabiltzen dena.

Ikusten denez, aurreko adibideetan zehaztasunaren kontua "jasotasunarekin" lotzen da, eta jasotasuna, askotan, espainolarekin. Hitz asko daude *Elhuyar* elebidunear horrelakoak:

**angustia.** *s.f.* **1.** Estuasun, estuladi, estura, larrialdi, larritasun, itoaldi, arbintasun, herstura. *Angustia vital:* bizi-larritasuna. **2.** (Fil./Psicol.) Angustia.  
**suero.** *s.m.* **1.** Gazur. *El suero de la leche:* esnearen gazura. **2.** (Med.) Suero.

Hots, maila "arruntean", "literatura" mailan, nahi duzuen, baina maila jasoan, zientzia mailan, espainola. Zeren noski, *angustia*, espainola da soilik —frantsesez *angoisse* da, *anguish* ingelesez...— eta orobat *suero* —gainerako hizkuntza guztietan *serum* da—. Ildo beretsutik, gure terminologozat gure tradizioko *zilarbizi* ez da, antza, hitz serioa kimikan erabiltzeko. Har ditzagun berriro hiztegiak: latin hizkuntzak alde batera utzirik, *quicksilver* dugu —*mercure*-rekin batera— ingelesez, *Quecksilber* soilik alemanez, *kwik(zilver)* soilik nederlandera, *kviksølv* soilik danieraz, *kvicksilver* soilik suedieraz; eta polonieraz, *rtec* eslabiarren ondoan, *zywe srebro*... Ireki ditzagun orain *cerebelo* sarreran: *cervelet* aurkituko dugu frantsesez, italieraz *cervelletto*, alemanez *Kleinhirn*, danieraz *lille hjerne*, suedieraz *lillhjärnan*, polonieraz *mózdzek*... hots, gure terminologoei irigarria edo iruditzen zaien *garuntxo*, J. Etxepare sendagile eta idazle handiak erabiltzen zuena, edo *burmuin txikia* dira aurkitu ditugunak.

Euskal terminologiaren beste arazo latza, Jabi Ibañez de Aldekoak 1995eko otsailaren 24ko *Egunkaria*-n, Eroskiko produktuetan agertzen zen *esne desnatatua* zela eta, salatzen zuena da:

"Hara zer dioskuen: 'leche desnatada' euskaraz esateko, 'esne gaingabetua' gaitzetsirik, 'esne desnatatua' esan behar dugula. Erdal hitz hau erabiltzeko 'arrazoia' astakeria ederra da. Izan ere, 'gaingabetua' txarto omen dago, "pentsatzen hasita" kaxatako esne osoak ez duelako esnegainik ateratzen irakindakoan, eta, hortaz, esnegainik ez badugu 'gaingabetua' ez omen da arazoizkoa. Tira, honaino, argudioa onar nezake. Baina begira nola jarraitzen duen: 'gaingabetua' esango ez badugu, zein hitz eta 'desnatatua'! Ederra konponbidea!"

"Hori ikusita, bi txorakeria hauen artean bat gutxienez onartu beharko dugu: 1- Esneak irakiten duenean ez du 'gainik' ematen, baina bai, ordea, 'nata'. Horregatik 'gaingabetua' txarto legoke eta 'desnatatua' ondo. 2- Esneak euskaraz irakiten badu ez du gainik emango baina esne horrexek *si hierve en castellano entonces sí da nata*."

"Nik neuk zozokeria horiek ez ditut onartzen ez bata, ez bestea. Ondorioz ez dut ikusten zergatik 'gaingabetua' den hitz okerra, eta 'desnatatua' ordea, egokia. Nire ustez 'desnatatua' bestea bezain ilogikoa da (ilogikoak badira, eta nik ez dut honela uste) eta, gainera, erdera hutsa. Badirudi batzuen ustez gaztelarak egin ahal dituen analogiak eta erabil ditzakeen malgutasuna eta lizentziak, euskarari debekatzen zaizkiola."

Azken hitzek biltzen dute nik *esne denatatuaren sindromea* deitzen dudana. Beste hainbat terminoetan ere nabari da sindrome hori. Adibidez, esaten dute gure terminologok *baxura* eta *altura arrantzan* kontua ez dela arrantza *non* egiten den, baizik eta *nola* egiten den; hortaz, euskaraz *itsasbatterreko*, eta *itsas handitako* edo *itsas zabaleko* ezin dira erabili. Har ditzagun berriro hiztegiak: frantsesez "baxura"ko arrantza *pêche côtière* edo *littorale* da, eta "altura"koa, *pêche hauturière* edo *de haute mer*, eta ingelesez *coastal fishing* eta *deep-sea fishing*, hurrenez hurren. Frantsesari edo ingelesari edo besteri zilegi zaiona zergatik debekatzen zaio euskarari?

*Karniboro*-rekin gertatzen dena ere, azken buruan, *esne desnatatuaren sindromearen* erakusgarria da. Zientzia arloan ezin omen da *haragijale* erabili, klase horretako animalia batzuk ez baitira haragiz elikatzen. Horrela hasten bagara ez dago ezeri izenik ematerik: *ascensor/ascenseur* direlakoak igotzeko eta jaisteko balio dutenez, ezin dira horrela deitu, *submarino/sous-marin*-ak, ibai eta aintziretan ere ibili daitezkeenez gero, bestela deitu behar lirateke. Orobat flautak, gehienak zilarrezkoak izanik, *zurezko* haize instrumentuetan sartzen dituzte munduko hizkuntza guztietan. Ala, hori dela eta, sailari *maderena* deitu behar ote diogu? Ezin da gehiago harritu euskalduna patatak jaten dituen haragijaleak daudela jakitean, erdalduna zenbait *carnívoro*-k beste horrenbeste egiten dutela jabetzen denean baino. Eta bestalde, hiztegiek erakusten digutenez, germaniar eta eslabiar hizkuntzetan ez dago *karniboro*-ren arrastorik; denetan, alemanez izan ezik, *haragijale*-ren ordaina erabiltzen da, zientzian nahiz bestela, guretzat debekagarri gertatzen den arrazoia gorabehera.

Baina hiztegi elebidun hauek erabiltzeak baditu beste zenbait alde on. Adibidez, *paraninfo*, *hemeroteca* edo *quirófano*-ren gisako hainbat hitz itxuraz jaso eta nazioarteko, egiatan espainolez soilik erabiltzen dela ikusteko. Gainera, bide batez, euskal ordain txukunak eratzeko bidea erakusten dizute hiztegiok: *ospakizun areto*, *aldizkaritegi* eta *operazio* (edo *ebakuntza*) *gela*, hurrenez hurren. Beste askotan, espainolak soilik diren hitzen arazoa konpontzeko soluziobideak iradokitzen dituzte. Niri bederen, *arpillera*-ri ingelesez *zaku oihal* esaten zaiola jakitea interesgarria iruditzen zait; orobat *alezazio* danieraz *nahastura* dela, *baldosak* frantsesez *laukiak* eta ingelesez *solairu teilak* direla, *errodaia* hizkuntza gehienetan *filmatze* dela, *guata* ingelesez *kotoi gordin* eta katalanez *kotoi harro* dela jabetzea, edo ikustea Europako hizkuntza askotan espainolezko *válvula*-ren eta *valva*-ren ordainak hitz bakarrera biltzen direla. Edo Europa guztian *globo* izeneko aireontziei *baloi* esaten zaiela, 1858az gero Iparraldean bezala, hain zuzen. Eta *radio*, frantsesa gorabehera, nazioartekoa dela geometrian, baina hizkuntza guztietan-edo gurpilarenei *izpi* esaten zaiela, gure artean Andima Ibiñagabeitiak deitu zien bezala. Halaber, margolaritzan batzuek erabiltzen duzuen *mihise*, espainolaren ikuspegia dela, frantsesak *oihal* esaten diola besterik gabe, eta antzeko gauzak ingelesak eta alemanak. Eta abar eta abar.

Idazle asko daude —esan didatelako dakit— horrelako argibideen eske. Izan ere poema edo kontakizun bat ontzen ari den, edo itzulpen bat egiten ari den idazle txukunahia ezin da hasi bost hitzean behin hiztegi mordo bat irekitzen ikusteko buruan duen hitza nazioartekoa den edo beste hizkuntzek zer aukera ematen dizkieten aztertzeko. Baina lan hori ezinbestekoa du euskarak, espainolaren karga apur bat arinduko badu. Ez da ahaztu behar askotan hitz espainola zabarkeriaz, Europan duen hedadura ikusteko nekea hartu gabe eta guretzako bide erosoagoak dauden aztertu gabe hartzen dugula. Uste dut goiko adibide askok hori frogatzen dutela. Euskal terminologia zentro batek nahitaez eman behar lituzke horrelako argibideak egungo gure egoeran.

Baina lan horrek ez du fruitu handirik emango denok egin behar dugun ahalegin batekin batera ez badator. Esaterako, espainol hutsezko *motxila*-ren ordain izan daitekeen *bizkar zorro*, irrigarria iruditzen bazaigu, hots, espainolaren bidetik ez doan gauza oro, espainolaren musika edo erreferentzia ez duen gauza oro —*motxila*-ren frantses ordain den *sac à dos*-en kidea da *bizkar zorro*— irrigarria iruditzen bazaigu, gureak egin du.

\*\*\*\*\*

LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

## Euskal hiztegiaren eta terminologiaren inguruan

K. Mitxelena-ren *Orotariko Euskal Hiztegia*-ri eskerrak aro berria hasi da euskal hiztegiaren. Batez ere *Hauta Lanerako Euskal hiztegia*-ren bitartez, euskal hiztegi belaunaldi berri bat argitaratu da azken urteotan. Belaunaldi berri horretakoak dira *Elhuyar* hiztegiak, *Lur*-ek argitaratua eta orobat *Vox*-en oinarritzko elebiduna. Euskal hiztegiaren azken hogeita urteetan egin duen aurrerabideaz jabetzeko, aski da ikustea 1976ko *Euskal Hiztegi Modernoa*-ren eta 1996ko *Elhuyar* hiztegi elebidunaren artean alde guztietatik dagoen aldea. Ia izendegi itxurako hiztegietatik, egiazko hiztegien mikroegitura agertzen duten hiztegiak igaro gara.

Bestalde, eta hau da azpimarragarriena niretzat, hitzak testuinguruan kokatzen ikasi du euskal hiztegiaren, konturatu baita hizkuntza bat, azken buruan, esapide eta esaldi bilduma bat dela eta, hortaz, hizkuntza baten hiztegiaren betekizuna, hizkuntza horretako esaldien berri ematea. Printzipio hau hiztegi elebidunei aplikatuz, esan genezake hiztegi elebidun baten betekizuna, hitzen ordainak ematea baino areago, hizkuntza bateko esapide eta esaldien ordainak ematea dela. Dena dela euskal hiztegi elebidunek badituzte oraindik egitura arazoak, adieren kontestualizazioari buruzkoak, adibidez.

Terminologiari dagokionez, aldiz, gauzak ilunago ikusten ditut. Terminologia teorikoa eta praktikoa bereizten ditut. Alde teorikoari dagokionez, zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta etsiago nago terminologia ez dela *jakintza* bat, *teknika* bat baizik, hots, askoz hurbilago dagoela zapatagintzatik egoera gotorraren fisikatik baino. Bestalde, terminologiari buruzko literaturak badirudi, hemen eta nonahi, gehiago balio duela artikuluen egileen curriculum akademikoa puztuzeko, praktika terminologikoaren egiazko arazoetan argi egiteko baino.

Euskal terminologiaren praktikari dagokionez, hasi berrien hutsegiteez bete ikusten dut, batez ere teoriari buruzko lilurari eta Europako hizkuntzetako praktika terminologikoari buruzko ezjakintasun ia absolutuari dagokionez. Orobat, gure egungo praktika terminologikoaren emaitzen huts kezkarrien artean, bi aipatuko ditut: espainolarekiko morrontasuna, batez ere *esne desnatatuaren sindromea* gauzatzen dena, eta terminoen *zehaztasunari* buruz ditugun ideia ez oso zuzenak.

## En torno a la lexicografía y terminología vascas

A Koldo Mitxelena y a su diccionario *Orotariko Euskal Hiztegia* debemos el paso a una nueva era en la lexicografía vasca. En los últimos años, concretamente a raíz de la publicación de la obra *Hauta Lanerako Euskal Hiztegia*, ha surgido una nueva generación de diccionarios vascos, entre los que cabe citar los editados por Elhuyar, el de Lur y el básico bilingüe de Vox. Para apreciar verdaderamente el avance experimentado por la lexicografía vasca en los últimos veinte años, basta comparar y comprobar la diferencia existente, desde cualquier punto de vista, entre *Euskal Hiztegi Modernoa*, publicado en 1976, y el diccionario bilingüe de Elhuyar, de 1996. Hemos dejado atrás aquellos diccionarios con aspecto de nomenclátor, y accedemos a estos otros que presentan microestructura de auténticos diccionarios.

Por otro lado, y esto resulta a mi entender lo más relevante, la lexicografía vasca ha aprendido a situar los vocablos dentro de su contexto, ha reparado por fin que un idioma es, al cabo, un compendio de frases y modismos, por lo que el cometido de un diccionario es dar a conocer la fraseología de la lengua. Aplicando este principio a los diccionarios bilingües, podemos concluir que su labor es más de facilitar equivalencias de frases y modismos, que de ofrecer correspondencias de vocablos concretos. De todos modos, los diccionarios vascos bilingües siguen adoleciendo de dificultades estructurales, como, por ejemplo, las relativas a la contextualización de las acepciones.

En el terreno de la terminología, sin embargo, el panorama me parece más sombrío. Cabe distinguirse, a mi juicio, la terminología teórica de la práctica. En lo que a la teórica se refiere, cuanto más me documento sobre el tema más convencido me encuentro de que la terminología no es una *ciencia*, sino una *técnica*, y que guarda más similitud con la fabricación de calzado que con la física del estado sólido. Además, aquí como en cualquier parte, la literatura sobre terminología parece estar más orientada a engrosar los currículos académicos de los autores de los artículos, que a dar luz sobre los verdaderos problemas de la práctica terminológica.

En cuanto a la terminología vasca práctica, la veo plagada de errores propios de neófitos; resaltaría particularmente su fascinación cautiva por la teoría y su ignorancia casi absoluta de la práctica terminológica de otras lenguas europeas. Voy a citar dos de los errores más preocupantes en los que incurre nuestra práctica terminológica: la dependencia respecto al español, sobre todo lo que se podría denominar *esne desnatauaren sindromea* (*síndrome de la leche desnataada*), y las ideas no muy correctas que se tienen sobre la *exactitud* de los términos.

### **Autour de la lexicographie et terminologie basques**

C'est à Koldo Mitxelena et à son dictionnaire *Orotariko Euskal Hiztegia* que nous devons le passage dans une nouvelle ère de la lexicographie basque. Dans les dernières années, concrètement suite à la publication de l'ouvrage *Hauta Lanerako Euskal Hiztegia*, on a vu faire leur apparition une nouvelle génération de dictionnaires basques, au rang desquels il convient de citer ceux édités par Elhuyar, celui de Lur et le dictionnaire bilingue de base de Vox. Pour apprécier véritablement l'avancée enregistrée par la lexicographie basque dans les vingt dernières années, il suffit de comparer et de vérifier la différence qui existe, à tout point de vue, entre *Euskal Hiztegi Modernoa*, publié en 1976 et le dictionnaire bilingue de Elhuyar, de 1996. Nous avons laissé derrière nous tous ces dictionnaires à l'apparence de nomenclature, et nous accédons à ces autres ouvrages qui présentent une microstructure propre à d'authentiques dictionnaires.

Par ailleurs, et cela est de mon point de vue le plus remarquable, la lexicographie basque a appris à situer les vocables dans leur contexte, pour s'apercevoir enfin qu'un idiome est, en dernière instance, une somme de phrases et d'idiotismes, de là que la mission d'un dictionnaire n'est autre que de donner à connaître la phraséologie de la langue. En appliquant ce principe aux dictionnaires bilingues, nous pouvons en conclure que leur tâche consiste davantage à faciliter l'équivalence de phrases et d'idiotismes qu'à offrir des correspondances de vocables concrets. De toute manière, les dictionnaires basques bilingues continuent de pécher du point de vue des difficultés structurales telles, par exemple, celles relatives au remplacement dans le contexte des acceptions.

Sur le terrain de la terminologie, toutefois, le panorama me paraît plus sombre. Il convient d'opérer un distinguo, selon moi, entre terminologie théorique et terminologie pratique. Pour ce qui concerne le volet théorique, plus je me documente sur la question, plus je suis convaincu que la terminologie, plutôt qu'une *science*, est une *technique*, et conserve à ce titre plus de similitude avec la fabrication de chaussures qu'avec la physique de l'état solide. En outre, en ce domaine comme dans d'autres, la littérature sur la terminologie semble plutôt viser à grossir les curriculum académiques des auteurs des articles qu'à mettre en lumière les véritables problèmes de la pratique terminologique.

Quant à la terminologie basque pratique, je la vois truffée d'erreurs propres aux néophytes; je ferais ressortir particulièrement sa fascination captive de la théorie et son ignorance presque absolue de la pratique terminologique d'autres langues européennes. Je vais citer deux des erreurs les plus préoccupantes auxquelles s'abandonne notre pratique terminologique : la dépendance vis-à-vis de l'espagnol, surtout quant à ce que l'on pourrait

dénommer *esne desnatatuaren sindromea* (*syndrome du lait écrémé*), et les idées pas très correctes que l'on a sur *l'exactitude* des termes.

### **About Basque lexicography and terminology**

With his dictionary *Orotariko Euskal Hiztegia*, Koldo Mitxelena opened up a new age in Basque lexicography. Since the publication of the work *Hauta Lanerako Euskal Hiztegia* some years ago a new generation of Basque dictionaries has appeared, including those published by Elhuyar and Lur and the basic bilingual dictionary by Vox. To get a true picture of how far Basque lexicography has advanced in the last twenty years one need only look at the differences from all viewpoints between *Euskal Hiztegi Modernoa*, published in 1976, and the 1996 Elhuyar bilingual dictionary. We have left behind works in the form of mere nomenclatures and moved into works with the micro-structure of true dictionaries.

The most important thing in my opinion is that Basque lexicography has learnt to situate words in their context: it has finally realised that a language is a compendium of phrases and idioms, so the job of a dictionary should be to make known the phraseology of a language. Applying this principle to bilingual dictionaries we may conclude that their job is rather to offer equivalents of phrases and idioms than to present correspondences between specific words. In any event, Basque bilingual dictionaries still suffer from structural difficulties, for instance in the contextualisation of meanings.

In the field of terminology, however, the outlook is more sombre. I believe we must distinguish between theoretical and practical terminology. As regards theory, the more documentary evidence I compile on this matter the more convinced I become that terminology is not a *science* but a *technique*, and that it is more similar to shoe manufacturing than to solid state physics. Furthermore here, and indeed everywhere else, literature on terminology seems to be destined rather to pad out the academic curricula of authors of articles than to shed light on the actual problems of terminology in practice.

As far as practical Basque terminology is concerned, I see it as crammed with errors of the kind made by beginners. I would particularly stress its blind fascination with theory and almost absolute ignorance of the terminological practice of other European languages. Two of the most worrying errors incurred by our terminological practice are its dependence on Spanish, especially what we could call the *esne desnatatuaren sindromea* ("skimmed milk syndrome") and the largely incorrect ideas held concerning the *accuracy* of terms.